





piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 95. alea 2004ko irailaren 10a



**Etxebizitzen
prezio altuei ihes
eginaz**



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Soraluzeko bertso-paper lehiaketa

OINARRIAK

- 1.- Deba bailara osoko bertsozale eta bertso jartzaile guztiei zabaldua.
- 2.- Lanak aurkezteko epea: urriaren 22a bitartekoa izango da.
- 3.- Lanak hurrengo helbidera bidali beharko dira: Pil-Pilean Kultur Elkarte, 27 postakutxatila, 20590, Soraluze edo pilpilean@euskal.net helbide elektronikora.
- 4.- Bertso paperek 8 bertso izan beharko dituzte gutxienez.
- 5.- Gaia librea izango da.
- 6.- Sariak modu honetan banatuko dira:
A mailan (16 urtetik beherakoak)
1.Saria: 90 euro eta txapela.
2.Saria: 70 euro.
B mailan (16 urtetik gorakoak)
1.Saria: 180 euro eta txapela.
2.Saria: 120 euro.
- 7.- Epaitze lanez, bailarako bi bertsolari ezagun arduratuko dira.
- 8.- Epailak hala eritiz gero, saririk banatu gabe gera liteke.
- 9.- Saridun bakoitzak sari bana bakarrik jaso lezake.
- 10.- Lan sarituen berri, urriaren 29an jakinaraziko da herriko jatetxe baten egingo den bertso afarian.
- 11.- Sari banaketa bertso afarian bertan egin da.
- 12.- Ez da aurrez argitaratu edo antzetzutako lanik onartuko.
- 13.- Lanak ordenagailuz idatzita aurkeztu beharko dira.
- 14.- Lana ezizen batekin sinatu beharko da eta honi atxikitako gutunazal batean egilearen datu pertsonalak jarriko dira (izen abizenak, helbidea eta telefonoa).
- 16.- Lehiaketan parte hartzen duena, aurrez aipatutako baldintzak betetzera behartua dago.
Antolatzaileak:
Ibilixan Ibilixan Bertso Eskola
Soraluzeko Udala



Margari eta Maria

SABIN MENDIZABAL

Margari eta Maria. Herriko plazan. Alkarren onduan jarritta. Pertsona bakarranda-ko banko banatan. Alkarri bizkarra emonaz. Ahulkixak hala ipini zittuen. Ixilik daoz. Ezer esan barik. Ezer esan ezinda. Plazak ez dira iada berba egitteko tokiak.

Jose eta Karmen. Bera urtietan dago langabezia, 40 urte bete zittuanetik. 53 urte dakaz. Karmen ostera bizi guztian etxekolanetan, hiru seme-alabakin. Alokairuan bizi dira. Baina ez luzerako. Ez dabe ordaintzeko lain irabazten. Laster kalera botako ditue.

Felipe. Felipe nekazarixa da. Hegoamerikarra, adibidez. Lurra lantzetik bizi da. Bera eta bere emazte ta bost seme-alabak. Ez dauke lurrik lantzeko. Ez dauke bizibiderik. Jauntxua da lur guztien jabe.

Iñaki eta Leire. Etxe bila dabiz. Gurasuenetik alde egitteko. Alokatiakin pentsatu dabe. Edo txoiloren bat bada, erosita. Etxe ugari hutsik egon arren gurasuenian jarraitzen dabe. Diru eta eskaintza falta dira arrazioak.

Bi lagun, edo bost, edo bakar bat. Ez dauke izenik. Izana izatia nahi dabe ordia. Izana ukatzen doskun bizimodu honetatik urten biharrak. Leku bila. Etxetxo bat, basarri bat edo agian herrixka bat. Lasai bizitzeko. Beren bizitzan jabe izatera heltzeko.

Bost ipuin. Bost historixa. Gehixago be izan ahal dira. Itxura baten ez dauke beren artian zerikusirik. Ez itxura baten, baina bai sakonian. Biharran eta ezinan historixak dira. Alkarrekin egon eta ko-

munikatzeko biharra. Aterpe baten biharra. Bizimodua aurrera etartzeko biharra. Independizatzeko biharra. Gure bizitzen jabe izateko biharra. Eta ezina. Espekulazinuagaittik etxerik lortu ezina. Jauntxuak nahi ez dabelako lurrik lortu ezina. Baliabiderik ez dagualako aterperik euki ezina. Gune herrikoien pribatizazina gelditu ezina.

Danon eskubidia ei da biharrak ase daittezela. Batez be, ase-ezin horren arazoia gutxi batzuen interes makurrak badira. Euron aberastasunak zaindu eta haunditza besterik ez dabe nahi. Legian babesaz, baitta armen babesaz. Injustizia honetan luzatzia dabe helburu. Aspaldidanik da hola eta egun be halan jarraitzen dau. Eta errua ez da eurenak bakarrik. Danona da. Bere hortan egon dadila lagatzen dogulako. Injustizia honekin amaitzen ez dogulako. Aukerak badare, aukera asko. Eta honetako bat da okupazina.

Tresna bat da. Biharrak asetzeko. Ezina ekinez egitteko. Injustiziakin amaitzeko. Familixa ugari dago beste biderik ez daukelako, ixilixan, okupatzen. Ugariak dira Brasil edo Guatemalan jauntxuen zenkerixiakn aurrian lurrik okupatzen ditudenak be. Eta ugariak etxia lortzeko edo beste bizimodu bat aurrera etartzeko okupata daren etxe, basarri eta herrixak. Eta badira Iruñako Arrosadiako bizilagunak modukuak, udalak lapurtutako parkia okupatu eta berreskuratu dabena.

Bizitzeko era bat izan leike, bizi ahal izateko bide bat da. Injustiziakin amaitzeko. Eskubidia eta aukera. Okupazina.

Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. zer moduz udako oporrak?. Stop. harek hobe!. Stop. jaixak be edarrak juan ziran eh!. Stop. aurten Galtzagorrixak bixitasun pixkat ekarri dabe. Stop. hori ezin da ukatu. Stop. tabernazaliegixok eta zaharregixok ez zenduten igarriko baina bestiok bai!. Stop. azkenengo eguneko aldaketia ikusi besterik ez dago. Stop. aurtengua bai izan dala azkenengo egun bat!. Stop. de dio!. Stop. eta datorren urtian nahikua litzake aurten besteko jaixak eginda. Stop. nahiz eta Pil-pileanendako ez diran onenak izan. Stop. ze malapartaturen bat gustora ibiliko da gure kamara digitalarekin. Stop. hargatik ez dator jaixetako argazkirik. Stop. baina dagoeneko badaukagu kamara berri bat. Stop. eta kazetarixa be halaxe nahi genduke. Stop. urtebetez behintzat aldatu. Stop. ia batenbat animatzen zareten. Stop. guk pixkat denkantsatu deigun. Stop. ze... Stop. hala ta be hemen 95. alia;. Stop. etxebizitzan prezio altueri ihes egin eta behingoz gurasuenetik urtetzeko ideia pila. Stop. Izartu II rekin jasoko dan diru pilaren berri. Stop. sindikatuen lokal eskaerari Udalak emondako erantzuna. Stop. "laguntzeko espiritua daukagu". Stop. Gilako mahaixen inguruko telenobela. Stop. tabernerero eta txikiteruak ala Udalak dauka arrazoi?. Stop. datorren inkestarako galdera edarra!. Stop. eta "Euscalduna?". Stop. ahaztuta daukagu...



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soralue.
Telefonoa 943 75 13 04
comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurrutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

Erreportaia


Etxebizitza izateko eskubidea herriar guztiok dugun eskubidea da, baina beste eskubide asko bezela gaurko gizartean oso urratua dagoen eskubidea da. (...)



Zorion agurrak



Eneko Sude
Abuztuaren 4an
Zorionak mutikote!!
Segi beti bezain
jator izaten.
Aritz eta osaba
Juanjon partez.



Egoitz Unamuno
Irailaren 16an
Zorionak!!
ez dugu ulertzen
nola ez duzun nes-
karik topatzen zure
sex apil horrekin.
Pil-pileaneanekuon
partetik.



Mikel Santiago
Iralaren 30ean
Zorionak mutill!!
Ondo pasa, eta segi
hain zintzoa izaten
eeh!! Jejeje.
Kuadrilakuen partez.



Urko Arizaga
Uztailaren 15ean
Zorionak!!
Berandu baina
seguru... Jarraitu
beti hain jator izaten.
Senidien partez.



Aitor Madrid
Iralaren 15ean
Zorionak!!
Jun Pastak prestat-
zen, pil pileanen
gosiak gare eta!
Pil-pileaneanekuon
partetik.



Leire Mendizabal
Zorionak neskatoo!!
Ondo ondo pasa.
Eta segi beti bezain
jatorra izaten.
Kuadrilakuen partez.



Iñaki Larrañaga
Irailaren 7an
37 urte
Urtiak be badoiaz eh?
Nora goiaz afaltzera?
Muxu asko eta ondo
pasa.
Itziar eta Ekainen
partetik.

jaiotakoak

Jone Gallastegi Lete
Julen Gabilondo Prol
Asier Lenin Canales Lopez
Hodei Calleja Cruz
Naroa Cobos Gallardo

hildakoak

Meltxora Sebal Agirre
Julia Saez Saez

ezkonduak

Federico Baviera eta Yolende Herrero
Endika Zubizarreta eta Lidia Fernandez

OHARRA

Zorion agurretan argitaratuta-
ko hainbat argazki daude
Iratxo goxodendan. Oraindik
argazkiak jaso gabe zaudete-
nok bertan aukituko dituzue.

1963an Jaiotakoan Bazkaria

Irailaren 18an
Txurrukan
Ordainketa Kutxan egin beharko
da 50 euro ordainduta. Azken
eguna irailaren 16^a izango da.

ESKERRAK

San Andresera igoerako antolatzaileen
partetik, eskerrik beroenak aurtengo
edizioa antolatzeko laguntza eman
duten elkarte, enpresa eta norbanako
guztiei. Eskerrikasko bihotzez!

LAN ESKEINTZA

Pil-pilean Herri Aldizkariak aldi baterako KAZETARIA BEHAR DU

* Eskatzen da:

- Euskaraz idazten maila ona izatea.

* Kontuan hartuko da:

- Antzeko lanetan esperientzia izatea.

- Herriaren ezagupena.

- Baliagarritasuna.

* Eskaintzen da:

- Urtebeterako egun erdiko kontratua.

- Lan ordutegi askea.

Interesatuok bidali curriculuma irailaren 24a baino lehen, ondoko helbidera:

Pil-pilean Euskara Elkarte 27. postakutxa – 20590 SORALUZE
edo pilpilean@euskalnet.net Telef. 943751304

pilpilean



IKASTAROAK

Begirale Titulua Debabarrenean

Ikastaroa urrian hasi eta maiatzean
bukatuko da. Saioak larunbat goizez
eta arratsalde izango dira Elgoibarren.
Izena eman edo informazio gehiago
jaso nahi izanez gero Udaleko Gazteria
Zerbitzuan edo telefono zenbakia ho-
netara deituz egin daiteke; 943
753043.

Nekazalturismoko ikastaroa

Mendikoi Nekazal Eskolak Neka-
zalturismoko IV. ikastaroa antolatu du.
Edozeinek har dezake parte. Helbu-
ruak, landa-turismoko zerbitzuak en-
presa ikuspegitik modu egokian kude-
atzea, kalitateko eskaintza egitea, edo-
ta eskualdeko baldintzei egokitutako
turismo-eskaintza integratua bermat-
zen duten baliabideak sustatzea dira.
Ikastaroa urriaren 4an hasiko da eta
abendura bitartean luzatuko da. Izena
emateko epea hilaren 30era artekoa
da. 943692162-166

Ikasketa ez unibertsitarioak

Eusko Jaurlaritzak 2004-2005 ikas-
turterako bekak antolatu ditu, unibertsit-
arioak ez diren ikasketak burutzen dituz-
ten ikasleentzako. Laguntzak atal haez
osatuta egon daitezke: irakaskuntzarako
laguntza, joan-etorrietarako edo egoitza-
rako laguntza, jantokirako laguntza, la-
guntza osagarria. Epea: urriak 15

Elkartasuneko tailerra

Intered Euskal Herria erakundeak "elkar-
tasuna eta kooperazioko jokoak" izene-
ko tailerra antolatu du irailak 25 eta 26ko
asteburuan Donostian. Ordutegia: irailak
25 zapatua, 10etatik 14etara eta
15:30etik 19:30era, eta igandea 26,
10etatik 14etara. Epea: irailak 23

BESTELAKOAK

Etxea salgai

70 m²ko etxea salgai Gabolatz kale-
an. Berriztua eta altzariekin. Ganbara
eta igogailua dauka. 636555246



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE



SAN ANDRES

Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

Zer irizten dotsazu?

Etxebizitzak aurkitzeko herriko hainbat gaztek bilatu dituzten bestelako aukeren berri jakingo dugu ale honetan. Baina gazteok gero eta beranduago irtetzen dugu etxetik? beranduegi?

Zenbat urtekin juan zinan etxetik? zein adin iruditzen jatzu onena etxetik juateko?



Jose Antonio Vaquero
33urte
langilia
Ointxe nago etxetik juatekotan. Etxetik zenbat eta lehenago juan hobe da, 24-25 urte da adin egokixena. Gaur egun etxetik juatia oso zaila da diru asko bihar dalako, gaur egun kobratzen diran soldatekin ez dago etxerik erosterik.



Goizane Mendia
19 urte
ikaslia
Edozein adin da ona etxetik juateko, baina gaur egun beranduago juaten da. Lehen lehenago hasten zan lanian jentia baina gaur egun ikasketak dirala eta beranduago hasten da lanian eta zailagua egiten da goiz independizatzea.



Eugenia Muñoz
43 urte
etxeandria
Ni 22 urtekin juan nintzan, ezkondu nintzanian. Independizatzeko edaderik ez dago, norberak ikusten dau noiz heldu jakon garai-a. Gaur egunian zailagua da etxetik urtetzia, etxian gustorago zarete eta.



Pablo Santo Domingo
73 urte
jubilatua
Ni 9 urtekin juan nintzan etxetik, apopilo eta ezkondu nintzanian bizi izan nintzan nere etxian. Gaur egunian zailagua da etxetik juatia, arazo gehixago dare lana topatzeko eta gauzen prezioak oso garestiak dira.



Alberto Alvarez
21 urte
ikaslia
Ikasketak bukatu eta 4 urte beranduago urtetzia edade aproposa da. Eta ez baldin badozu etxe baten sartzerik nahi, beti jun zeinke alkilerrian lagunekin. Gaur egunian zailagua da etxe bat erostia, oso karu darelako.



Maria Olga
58 urte
torlojugilia
Ni 21 urterekin joan nintzen etxetik, ezkondu nintzanian. Gaur egunian etxetik urtetzia zailagua da dirurik ez dagualako eta horregaitik gurasuekin geratzen dira gaztiak.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



Jose Antonio S.L.
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)

Ikasturte berria ikastetxe berrian



Irailaren 9an hasi zuten Plaentxi Ikastetxeko 261 haurrek eta Soralue Istitutuko 152 gaztetxoek ikasturte berria. Guztira ikasle hasi dute ikasturtea, aurten 2 urteko 28 haur matrikulatu direlarik. Goiko ikastetxe eraberrituan

hasteko arazotxo batzuk (eraberritze lanak guztiz amaitu gabe) izan diren arren, Lehen Hezkuntzako haurrak bertan hasi dute ikasturtea eta abenduan Haur Hezkuntzakoak ere joango dira.

Asier eta Iñakiren omenaldia

Asier Heriz eta Iñaki Saez heriotzaren 3. urteurrenean, bi herritarrak gogoratz sakabanaketa politika salatu eta Euskal Presoen Euskal Herriratzeari eskatzeko ekitaldiak antolatu dituzte domeka honetarako. Asteazkenean konzentrazioa egin zen Plaza Berrian. Domekan, goizaldeko 9:00etan mendi martxa egingo da Atxolinera eta ondoren, eguerdiko 13:00etan omenaldia antolatu dute Karakateko oroitz monolitoaren ondoan. Bestalde, aipatzekoa da Euskadiko Epaitegi Nagusiak indarrak gabe utzi duela Udalak Asier eta Iñakiren gorpuak herriratzeko gastuak Udalak berak ordaintzeko hartutako erabakia. SAHeK epaia errekurritzeko eskaera egin arren Udaleko Gobernu Taldeak ez errekurritzea erabaki du.



Asteazkenean Udaleko Gobernu taldeak presoen auzian lan egiteko hartutako "konpromisua ez betetzea" salatzen zuten idatzi bat kaleratu zuten Presoen Aldeko Elkartasun Kideek kalean.

Udal eraikinen garbiketa zerbitzua

Irailaren 1eko Udaltzarrean Udalak aho batez onartu zuen Udal Eraikinen Garbiketa Zerbitzuaren ardurua Arreta Zerbitzuak S.L. enpresari esleitzea. Enpresa honek Udalaren jabetzako eraikinak (Udaletxea, Ikastetxeak, HHI ko zentrua...) garbitzeko ardurua izango du eta horretarako 80.986 euro jasoko ditu urtean.

"Baso bidez" hitzarmen eredu

Udaltzarrek aho batez onartu zuen Udaleko Ingurumen Sailak Baso Bidez egitasmoa garatzeko proposatutako hitzarmen eredu. Hemendik aurrera, Baso Bidez, zuhaitz mota autoktonoen masa forestala handitzeko egitasmoan parte hartu nahi duten baso jabeek hitzarmena sinatu ahal izango dute Udalarekin. Udalak poliki poliki bada ere, baserritar eta baso jabe gehiagok egitasmoan parte hartuko duten itxaropena dauka.

HHI matrikula zabalik

Dagoeneko zabalik dago HHiko aurtengo ikasturtean izena emateko epea eta irailaren 13ra bitartean izango da horretarako aukera. Aurten ere ikastaro ezberdinak eskeinitako dira hainbat helburu izango dutenak; DBHko graduatua lortzea, ordenagailuei beldurra kentzea, hobeto irakurri eta idaztea, unibertsitateara heltzea, gaztelaraz ikastea, ingelesean eta euskaran lehen urratsak ematea, eskulan tailerrak egitea... Azpimarratzekoa da ikastaro hauek ofizialak izateaz gain dohainekoak direla. Izena emateko 10:00-12:00 eta 16:00-18:00 bitartean egin liteke, Baltegiatako egoitzara joan edo 943753017 telefonora deituta.



kutxa

gizarte ekintza

**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarraren 22 behean, telf: 943751789

Izarturen dirulaguntza berria

Eusko Jaurlaritzak IOzarturen bigarren deialdira Soraluzeko Udalak aurkeztutako eskaera ontzat eman duela jakinarazi zuen uztailen. Bigarren deialdi honetan, Soraluzeko Udalarik 1.869.119 euroko (31 milioi pezeta inguru) dirulaguntza emango dio Jaurlaritzak. Dirulaguntza hauek 2004 - 2008

urte bitartean garatuko diren hirigintza eta ingurumen proiektuetara bideratuak izango dira. Dirulaguntza hauekin proiektuon finantziazioaren %70 estaliko da. Jaurlaritzak irailaren bigarren hamabostaldian jakinaraziko dio Udalarik dirulaguntza honekin babestuko dituen proiektuak zeintzu izango diren.

Sindikatuak lehen bezela

Uda osteko lehen udalbatzarrean, Udaleko SAH taldeak sindikatuen egoeraren inguruko mozioa aurkeztu zuen. Mozio horretan bi puntu azpimarratzen ziren, bata Udalarik urtebeteko epean sindikatuendako egoitza egoki bat hartzeko konpromisua hartzeko eskatzen ziona eta bestea, noizbait jubilatutandako egoitza hobe bat lortu eta Etxaburuetako egoitza husten bazen egoitza horren etorkizuneko erabilera adosteko sindikatuarekin biltzeko konpromisua eskatzen duena. SAH eta PSEEk aldeko botua eman arren, EAJko bost zinegotzik lehenengo puntuaren aurkako botua eman zuten eta beraz Udalak ez du

sindikatuari epe motzean egoitza berri aurkitzeko konpromisorik hartu. Gobernu taldeak adierazi zuenez, "epe motzegia" da egoitza berri bat aurkitzeko, "Udalak ez daukalako horretarako baliabiderik momentu honetan". Gobernu taldeak sindikatuari egoitza bat aurkitzeko "espirituarekin lan" egingo duela esan arren, SAH eta PSEEk zinegotzietan dena hitz hutsetan uztea leporatu zieten. Udalbatzarrean izan ziren LAB sindikatuko ordezkariak ere euren ondoeza adierazi zuten, Udalak aurtengo urtea amaitu aurretik arazoa konpontzeko erabaki bat hartuko zuela agindu zieten salatuz.

Zigilu eleaniztunen aldeko mozioa



Irailaren 1eko Udalbatzarrek aho batez onartu zuen Organizazio pel Multilingüisme taldeak "Zigilu eleaniztunen" izenburupean aurkeztutako mozioa. Mozio horretan Espainiar Estatuan argitaratzen diren sei luak estatuko hizkuntza aniztasuna (euskara, katalana, galiziera...) errespetatu dadin eskatzea eta eskaera hori Estatuak eta EAeko agintari nagusiei helarazteko konpromisua hartzea proposatzen zaio Udalarik eta Udalak onartu egin du.

Istripua Txurruka auzoan



Joan zen larunbatean, irailaren 4an, auto istripu bat izan zen Txurruka auzoan. Autoan Eibarko lau lagun zioazen. Autoa maldan behera joan zen arren lagun bat bakarrik zauritu zen, klabikula hautsi zuen.

Logroñora irteera

Itzaropena Jubilatuen Elkarteak antolatuta irailaren 22an Logroñora irteera izango da. Izen ematea datorren asterarte izango da zabalik Itzaropenan bertan.

Udalak zigor espedientea Gilari



Udalak Gila tabernari zigor espedientearen zabalteko erabakia hartu du azken hilabeteetan tabernaren pareko espaloian jarritako mahaiak direla eta. Anak orain hiru urte eskatu zuen BBVA banketxearen parean mahaiak jartzeko baimena eta orduan Udalak ukatu egin zion baimen hori. Aurten, abuztuan mahaiak jartzeko eskaera berri bat egin zuten eta Udalak ukatu egin zion berriz. Anaren esanetan Udalak "aitzakia mordo" bat jarri dio baina "bat ere ez arrazoizkoa" eta ez du ulertzen "hiru mahaitxo jartzeko baimena" ukatzearen arrazoia, "herriko beste gune batzuetan nahi beste mahai jartzeko aukera izaten den bitartean". Anaren esanetan, BBVA banketxea kexatu zitekeen baina horren ordez, eskaera sinatu omen dute eurak ere. "Bezeroak eskatu didatelako jarri ditut mahaiak, ez da diru gehiago irabazteko, jendea zerbitzu bat emateko da" dio. Anak mahaiak jartzearen aldeko sinadura bilketa hasi zuen orain aste batzuk eta dagoeneko 475 herritarren aldeko sinadurak lortu ditu. Udalaren esanetan, "espaloiak libre behar du jendearen joan etorrietarako eta horregaitik ukatu zaio baimena, gainera berarekin berba egin arren, berak nahi duena egiten jarraitu du eta hori ezin dugu onartu".



Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@telex.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g

138 Postakutxa

tf: 943 752 150

Faxa: 943 752 118

SORALUZE

Bizileku bat lortzeko bestelako aukerak herrian

Etxebizitza izateko eskubidea herriar guztiok dugun eskubidea da, baina beste eskubide asko bezela gaurko gizartean oso urratua dagoen eskubidea da. Lurraren eta etxebizitzaren espekulazioak neurri gabe hazi ditu etxebizitzaren prezioak eta batzuek "euren biziko negozioa" egiten duten bitartean beste askok bizileku duin bat aurkitu ezinik ibili behar izaten dute edo bizi guztirako zorretan sartu bestela. Egoera horri aurre egin beharrez badira gure herrian, bestelako aukera eta bide batzuk urratzen dituzten gazteak ere. Bestelako eredu horietako batzuk ezagutu nahi izan ditugu oraingoan, erakunde publikoek, etxeekin negozioa egiten duten horiek eta geronek bizi jarrera aldatzen ez duten bitartean erabili beharko diren bestelako ereduak.

Taberna etxe bihurtua

Udalak joan zen urtean onartu zuen baldintza jakin batzuk betetzen zituzten etxe barreneko lokaletan etxebizitzak egin ahal izateko araudia. Ordutik hona zenbait soraluzetarrek aukera hori baliatu eta etxeak egokitu dituzte barreneko lokaletan. Hori bai, etxebizitza bihurtu ahal izateko lokalak baldintza batzuk bete behar ditu nahi eta nahi ez; 40 m² baino gehiago izan behar ditu, 2,5 m baino gehiagoko altuera izan behar du eta sarbidea eraikinaren ataritik izan behar du (ez zuzenean kaletik). Baldintza horiek bete ezkerreko lokala etxebizitza moduan egokitzeko baimena lortu daiteke. Hori da Edurne eta Oierren kasua.

Edurne Unamuno (27 urte) eta Oier Zubizarreta (29 urte) bikotea dira eta Atxuri kalean bizi dira, lehenago Edurneren familiarena zen "Josetxo Ardangela" zenaren lokalean. Aurten egokitu dute. Orainarte Oier beste bi pisutan



Edurne eta Oier lehenago taberna izandako etxeko egongelako lehoian.

Gustora daude, etxe berri eta garesti baten kostuari aurre egin beharrik gabe bizi ahal izateko bizileku duin bat dutelako.

izan zen lagunekin alokairuan, Edurne berriz gurasoekin bizi zen. Udalak etxe azpiak etxebizitza bihurtzeko aukera izango zela iragarri aurretik ere pentsatua zuten Edurnek eta Oierrek lehenago taberna izan zena etxebizitza moduan egokitzea, "oso garbi genkan ez genduala erosi bihar etxe berri bat" dio Edurnek. Gainera Edurne gurgildun ahulkian da-

goenez, oso zaila zeukaten sarbide egoki bat izango zuen etxe bat aurkitzeko eta azkenean taberna etxe egitea erabaki zuten.

Udalan baimena eskatu eta "hasieran arazotxo batzuk izan genduzen eskriturretan etxe moduan izendatu bihar zalako lokala ezer egiten hasi aurretik. Gainera aparejadore batekin proiektu bat aurkeztu bihar da eta metro karratuko 24 euro ordaindu. Diru asko kostatzen da azkenian". Etxeak m² ditu eta egongela handi bat, sukaldea, logela bat eta komuna atera dituzte. Gustora daude, etxe berri eta garesti baten erosketari ihes eginda, dagoeneko badutelako biak batera bizi ahal izateko moduko bizileku duin bat.

IKERLAKU
 PODOLOGIA ZENTROA
 OINETAKO GAIXOTASUNAK
 AZTERKETA BIOMEKANIKOA
 KIROL PODOLOGIA
 NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK

ARMENDIA
JATETXEA

Ezoz Auzoa, 11
 20590 Soraluze
 Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

Alokairuko pisu elkarbanatuak

Soraluzen alokairuko etxe batean bizi izateko dauden aukerak oso urriak dira. Julitarenean (Mafre Aseguru Etxea) esan digutenaren arabera esaterako, eskaria oso handia da baina apenas dagoen eskaintzarik. Eurak ez daukate eskaintza bat ere eskuartean. Jendeak ez omen du etxea alokairuan jartzeko arriskatu nahi izaten, maizterrekin arazoak izango dituen beldur. Alokatu diren etxe apurretan prezioak 240 euro eta 300 euro bitartean omen dabilta. Loiola eta Hektorrek 270 euroko alokairua ordaintzen dute.

Loiola Madera (25 urte) eta Hektor Garitano (32 urte) (eta Nai) elkarbanatutako etxe baten bizi dira. Herrian era horretan bizi diren bakarrenetakoak dira, etorkin familia batzuen gain, nahiz eta azken urteetan gazteek elkarbanatuta alokairuan hartutako etxeak ugaritu diren herrian (horietako dozenardi etxeren berri jakin dugu), hiriburuetako ikasle pisuak dira Soraluzeko gazte gehienak ezagutzen dituzten elkarbanatutako pisu bakarrak. Orain hiru urte sartu ziren etxean eta bost urterako kontratua sinatu zuten inmobiliaria batekin. Etxeak 110 m² ditu eta 270 euroko alokairua ordaintzen dute hilero. Hasieran hiru ziren baina orain biren artean ordaintzen dute alokairua eta hirugarren lagun baten bila dabilta.

Elkarbanatutako etxeena "gaztiok gurasuenetik kanpora bizitzeko modu bakarra da" Loiolaren esanetan. Hala ere elkarbanatutako etxe bat ez da betirako konponbidea, "bizitzeko etapa bat da, bakarrik edo bikotiakin bizi izaten jarri aurretiko etapa bat. Nik uste hogei-tapiku urtekin komenigarria dala etxe-



Hektor, Loiola eta Nai elkarbanatzen duten etxeoko sukaldean.

tik juatia bizitza propioa egiteko eta hau da horretarako aukera bakarra." Lagunekin batera bizitzera moldatu egin behar izaten da. Etxean txandaka egiten dituzte erosketak baina bakoitzak berea prestatzen du. "Egun baten dana dago eta hurrengo egunian igual ez dago ezer" diote. Gurasoenean baino desordentuago daukate etxea, bizimodua garestiagoa da baina "askatasuna erabatekoa" da eta hori ez daukate saltzeko.

Okupazioa ere hor dago

Beste aukeretako bat okupazioa da. Herrian badira okupatuta dauden etxe gutxi batzuk eta badira horretaz gainera, oso urruti ez dagoen baserri baten bizi

diren soraluzetar gazte batzuk ere. Mekolaldeko Dorrekua baserrian bizi dira hain zuzen, beste gazte eibartar batzuekin batera, urtetan hutsik izan den baserri zahar batean. Beste era bateko bizi eredu daramate eta horixe bultzatzen ahalegintzen dira. Horrexegaitik agian, orain hilabete batzuk poliziaren kamara bat aurkitu zuten euren etxe atarira begira. Zoritxarrez, hilabete batzuk barru Bergarako Udalak irazgailu bat egin behar du juxtu bertan eta atera egin behar du etxe edo baserri hutsen bat bizi ahal izateko, etxe huts aukera izango dute behintzat.

Instalazioak
Berrikuntzak



Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 615 70 27 65



EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko
menua eta
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

ARRANO

tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK



Telefona 75 24 09



“Euskalduna” lantegiaren historia txikia



Ramiro Larrañaga historialari sorazuzetarrak, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen laguntzaz, La “Euskalduna” una importante fabrica guipuzkoana izenburupeko separata bat kaleratu du oraindela hilabete batzuk. Separatak di-tuen hamabi orrialdeetan zehar, 1862an sortu zenetik 1976an eraitsi zenerarteko arma lantegi garrantzitsuaren historia-ren laburpena kontatzen du. Hona he-



Euskalduna lantegia eskuz marraztua.

men azken orrialdeko lerro adierazgarri batzuk:

“Euskalduna” lantegia, herrian “fabrika zaharra” deitzen zitzaiona, 1976an eraitsi zen. Soraluze-Placencia de las Armas-eko Udalak, 1981eko martxoko udalbatzarrean ondorengo baldintza eta prezioetan bereganatu zituen lantegi horrek hartzen zituen lur-
rrak: - “Fabrica vieja” edo “Euskaldu-

na” deitutako lurra, guztira 1.931m²koak, hamazazpi miloi pezetako prezioan. – (...)

“Euskalduna” lantegia zegoen eremu-
muan polikiroldegi bikain bat eraiki
zen, oso beharrezkoa zena herrian.
“Arane” izenarekin bataiatu zen handik
hurbil zegoen iturri edangarri bati ai-
pamen eginaz: “Araneko iturria”. Hain
zuzen ere, iturri honen gainean dagoen
bidearen zatiari, Baltegieta kalean,
“Iturburu” esaten zaio, hitz horren eus-
karazko esanahiak adierazten duen be-
zela. “Euskalduna” herritarren artean
ahaztua gelditu da. Aipamen bat ere ez,
oroitzapen bakar bat ere ez. Gutxienez,
kontakizun honekin oroitzeko saiakera
bat egin da, ez halako pena jakin bat
gabe. Eta arrazoi bikoitzarekin, lantegi
honen parean munduratu bainintzen,
Deba ibaiaren bestekaldean, eta hau si-
natzen duenaren hiru belaunaldik lan
egin baitzuten bertan.

Eskerrikasko Ramiro!

San Martzial Jaiak indarberrituta aurten



Zapatuan Bergarako eta Soraluze-
ko musikariek alaitu zuten gaua. Afaloste-
an, gitarra eta flamenko doinuetatik
rock doinuetara igaro zen musika eta
lagunarteko giro bikaina sortu zen
bertaratu ziren 50en bat laguneren ar-
tean. Musikari eta abeslari asko agertu
ze n ordu txikietan.



Domekan jende mordoxka hurbildu
zen mezetara eta ondoren, herri kirol,
trikitilari eta bertsolariak izan ziren
ikusgai. Bazkalostean umeendako
jokuak eta etxafliuak izan ziren eta
Mus txapelketa ere bai. 8 Bikoteren
artetik argazkian agertzen den
laukoteak eraman zituen sariak.



TXURRUKA
JATETXEA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze



Iker Aldazabal Udaletzeko lantokian.

Izartu II eta Ajenda 21

Iker Aldazabal Udaleko Hirigintza eta Ingurumen batzordeburuarekin izan gara, lanurte berri honetarako Udalak aurrikusi dituen egitasmo garrantzitsuenen inguruan berba egiteko. Izartu II eta Ajenda 21 dira eskuartean dituen gairik garrantzitsuenak eta horretaz galdetu diogu, baina baita gaur egun martxan dauden lan ugarietaz ere. Azken urteetan bezela, hirigintza izango da datozen urteetan Udalak gehien jorratuko duen alorra.

Zer egingo da Izartuko dirulaguntza berrixekin herrixan?

Oindio zenbat diru jasoko dogun dagiku bakarrik. Soraluzeko Udaletik mila miloi pezeta inguruko dirulaguntza eskatu genduan eta guztira miloi bat eta zortzirehun mila euro jasoko ditugu. Dirulaguntza garrantzitsua da. Aurten Izarturen lehenengo deialdixan baino eskaera gehixago izan da baina Debabarrenetik Ermuaren ostian dirulaguntza gehixen jasoko daben herrixa izango da Soraluze. Jaurlaritza irailaren erdialdian diar egiteko gelditu zan eta orduan jakingo dogu ze proiektu garatzia onartu daben finantziaziñuaren %70rekin lagunduz. Guk aurkeztutako proiektuen artian, herrigune historikoa osatzen daben kalien berrikuntza, Arraikuako Saziako etxebizitzaren inguruaren urbanizazioa, Errekaldetik Baltegiatarako bidiaren eraberritzaia, Ezosi bidetik gorako bidian espaloia jartzia, Poligonoko bigarren zubixaren eraikitzea eta abar.

Herrixan hasita daren lanak zela doiaz?

Zeletako zubixa eta sahiesbidia azarorako guztiz amaituta izatia aurrikusten da. Ez bada oin arte sortu izan diran moduko arazo berezirik sortzen. Azaruan bertan, Saziako etxebizitzak (50, babes ofizialekuak) egitteko lanak be hasteko asmua dauka Jaurlaritzak eta horrek aparkamentu falta haundixa sortuko dau. Gabezia horri aurre egitteko Olatik Ezosi biderako sahiesbidian zihar aparkamentuak egokituko dira eta beraz, ez da norabide bikoitzekua izango aparkamentuen arazua konpondu bittartian. Arazo hori konpondu arte ezingo dira herri sarrerako semaforuak kendu. Ikastetxiaren eraberritze lanak amaituta dare eta frontoiko ikastetzeko umiak abenduan igoko dira gora. Horren ostian, Frontoiko Ikastetxian kultur etxia egitteko proiektua egitten hasiko gara herriko taldien beharrianen arabera.

“Azaruan bertan, Saziako etxebizitzak lanak hasiko ditu Jaurlaritzak eta horrek aparkamentu falta eragingo dau”

Zer jaso da Ajenda 21eko diagnostikuan?

Soraluzeko ikuspegi ekonomiko, sozial eta ingurugiro aldetiko egoeriaren argazki bat da. Hor jasotzen da ura, at-

“Datozen astietan Ajenda 21aren inguruko foro soziala sortu nahi dogu”

mosfera, zarata, energia, zaborra eta bestelako alorretako egoeriaren erreparatu bat. Udaleko alderdi politiko guztiak onartu dabe eta hori oso positibua da partehartzia ahal dan zabalena izateko.

Azpimarratzeko moduko arazoren bat?

Oso zabala da eta bereziki ezingo neuke arazo bat azpimarratu.

Egitasmua garatzeko ze pauso emongo dira?

Hau oinarritzat hartuta herriko elkarte eta taldiekin harremanetan jarri nahi dogu Agenda 21aren berri emoteko. Aurrera begira, datozen astietan herrixan egitasmo honen inguruko foro sozial bat sortzia da gure asmua. Alor desberdin horretan herritarrek dauzken kezka eta eritzixak jaso nahi dira gero akzio plan bat prestatzeko.

Herritar batzuek Ajenda 21 bigunegixa dala salatu dabe.

Ni egon nintzan protesta hori burutu zebe pertsonekin eta Ajenda 21aren berri gutxi zekixen. Nik Ajenda 21aren nondik norakuak azaldu notsezen eta sortuko dan foruan parte hartzeko gonbidapena egin bebai, euren ekarpenak egin deixezen bertan.

Izagirre garaile San Andresen



Abuztuaren 12an jokatu zen San Andres igoerako 52. edizioan Caja Rural taldeko Gorka Izagirre nagusitu zen 2:07:25 eko denborarekin. Bigarren Gari Jauregi (Bruesa) izan zen, hirugarren

Imanol Mendikute (Oriako) eta kadete mailako lehen sailkatua Antxon Anduaga (JMA) izan zen. Lasterketak 82 kilometroko ibilbidea izan zuen 56 txirrindularik hartu zuten parte.

Azkona 3. Valladoliden

Arrate Azkona soraluzetar atleta gazteak, Seleksioen arteko Espainiako Txapelketa Absolutuan parte hartu zuen uztailean Valladoliden. Jauzi hirukoitzean parte hartu zuen eta hirugarren sailkatu zen 13m 11zmrekin. Gasteizen 13m 02zm ko jauzia egin zuen Etorkizuneko Kirolarien mailan, 2. Postuan sailkatuz. Azkenik Almerian, Espainiako Txapelketa Absolutuan ere parte hartu du baina belauneko lesio bat zela eta ez zuen bere mailako jauzirik egiterik lortu. Azkona datorren astean hasiko da berriz entrenatzen eta abenduan pista estaliko frogetan parte hartuko du.

Besaidera irteera

Mendi taldeak antolatuta irailaren 19an Besaidera egingo da irteera. Besaide Arrasaten dagoen gun ezaguna eta bertan egiten da mendizaleen egun ezaguna.

Erretiratuendako gimnasia

Hirugarren Adinekoendako Mantenu Gimnastikako saioetan parte hartzeko interesa duten herritar guztiek, Udal Kiroldagiko lehenengo solairuan dagoen Kirol Bulegoan eman dezakete izena. Izena emateko epea iraila osoan izango da zabalik (goizeko 9:00etatik 10:30etara bitartean) eta medikuaren gaitasun agiri berriztatua aurkeztea beharrezkoa izango da.

Irailaren 19an lehen partidua



Sorako erregional taldeak irailaren 19an jokatu du bere lehen partidua. Aurten Arrasateko entrenatzaile bi izango dira taldearen buru eta kanpoko hainbat jokalarik ere izango dira. Datozen asteetan bazterketak egin eta jokalaririk saiatuenak geldituko dira aurtengo denboradiari aurre egiteko.

Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)
Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

FER. S.A.
Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

JABIER ALBERDI



ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

Unai Txurruka

Ez dot diru askorik bihar oin egitten dotena egitteko; gustora nago hola.

Amaittu dira oporrak gehixenon tristurarako eta Pil-pileanekuori be lanera bueltatzia tokatzen jaku. Umoria alaitzeko giro ona lagun dogula, Unai egin dogu topo, gogo larregi bare azkenian gure erregueri amen emon dotse. Oindio badauzka egun batzuk eskolara (aurten unibertsitatera) bueltatu aurretik, betiko errutinan murgildu baino lehen. Aprobetxaizuz bada azkenengo egun honek eta zorte on aurtengo ikasturtian!

Izen-abizenak, edadia eta lanbidia.

Unai Txurruka Maiztegi, 18 urte eta ikaslia.

Egun baterako plan borobila.

Goiz jaiki, bapo gosaldu, lagunekin norabait juan eta gabian juerga.

Zenbakixa, koloria, animalixa eta tokixa.

9xa, gorrixa, txorixak eta Soraluze.

Soraluzen larrosia?

Bertakuon artian daguan giro ona.

Eta arantzia?

Errekia, zikin-zikin eginda daguala. Herri honetan badare basura boltzia be lehiotikan erre kara botatzen dabena.

Milioi bat euro esku artian euki ezker...

Ez dot diru askorik bihar oin egitten doten egitteko; gustora nago hola.

Oporrak zela igaro ditzuzu?

Lekeittion pasatu dittut etxeko eta lagunekin.

Antzar Egunera hurbilduko zinan, ezta?

Bai, bai, kriston giro oneko jaixak dira.

Zer da oporretatik bueltatzian gogorrena?

Berriz be errutinan sartu biharra.

Zelakua izango ete da Unai

Txurruka hemendik 20 urtera?


Ez jata gustatzen epe luzeko planak egittia.

Dantza taldian be jarduten zara, noiztik?

Txistua jotzen oin dala 7 urte hasi nintzan, baina txikitxan be ibili nintzan dantzan.

Jarraitzeko asmorik bai?

Oingoiz bai, baina jende gutxi garenez,



Unai Txurruka

nahiko kantzauta gabiz. Hemendik Soraluzeke txistulari edo txistujole danak animatu nahi dittut dantza taldera etortzera!

Bertso Begiz

*Haizak Unai txistulari,
juergista amorratu hori,
rutina hori xamurtu asmoz
bertsoa opari.*

*Antzarretako gudari
kezkatu so ibaiari.*

*Hoge urtera baietz ikusi
ibaian igeri.*

Neko

(Doinua: Haizak hi mutil mainontzi)

(Gonbita eginda dago; beraz txistua jotzen jakin eta hola gozatzen dozueno ez daukazue aitzakirik, danendako lekua egongo da eta).

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

**Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!**



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Argazki zaharra

1940ko
Maristetakoa

Argazkixan Maristena moduan eza-
gutzen zan eskolako ikasle batzuk
azaltzen dira, 1940 urte inguruan
etarakua da argazkixa. Goixan, ezkerre-
tik eskumara; Juan Cruz Carvallo (+),
Jesus M^a Oregi, Jon Izagirre, Anton
Peñalba (+), Timoteo Urizar (+).
Beheian; Luis M^a Bolunburu, Ramon
M^a Mugica, Javier Galarraga, Alberto
Churruca (+).

Emilitak lagatako argazkia.

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer
soberan honetan?

*Bi lagunendako
afari mundial bat
irabazi zeinke!!*

DEITTU
943 75 13 04 ra

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tifonoa: 943 75 17 82


20590 Soraluze
GIPUZKOA

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81



aek SORALUZEKO euskaltegiak



EUSKARAREN
PIPER ETA
GATZA

EUSKARA
A LA CARTA



aek

Frontoi kalea 5, 2. erdiko 943 751434
soraluze@aeknet.net

Mahai-jokoa + CD-ROMa

GALDERA-LASTERKETA

ELHUYAR

MAJU ROBOT SUNTSITZAILEEN AURKA

ZerNola
www.zerNola.net

GIPUZKOA ZURE ESKU

Zein da Gipuzkoako mendirik
altuena ?

Deitu 943 75 13 04ra

Joko mundial hau
irabazi zeinke!!



IKERLEKU

PODOLOGIA ZENTROA

Oinetako gaixotasunak

Azterketa biomekanikoa

Kirol podologia

Neurrira egindako plantillak

Ikerleku Zeharbidea Bergara 943 76 07 84

EZOZIA

JATETXEA

*Zatoz eta gozatu
gure jakiak!*



*EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk
ederrenak preziorik onenean.*

*Eguneroko menua
eta aukera zabala kartara.*

Ezozia Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE